

KONTU-KONTARI**MAKEAKO KABALKADA,
HERRI TTIPI BATEN INDARRA**

Kabalkadak, toberak eta horrelakoak kontu zaharrak dira Euskal Herrian, edo hobeto erranik, garai zaharretatik datozkigun usai edo ohitura zaharrak dira. Nafarroa Beherean eta Lapurdin indar handiko ikuskizunak izan dira. Hainbat herritan biziki sustraituak eta Makea dugu horietako herri bat.

1. Makea eta kabalkadak

Hirurogeita hamarreko hamarkada arte maiztasun handiz egin bazituzten ere, hortik aitzina ez zuten kabalkada gehiagorik egin. Garai batean, toberak egiten zituzten, hau da, epaiketa moduko ikuskizunak, baina badirudi, XX. mendearen hasieran toberarik gabeko kabalkadak egiteko deliberoa hartu zutela. Ez dezagun ahantzi molde zaharreko toberak sobera bortitzak zirela, eta agian horregatik, erabaki zuten antzerki mota hori baztertzea eta kabalkada, berriz, eustea. Ez dakit, gauza da, aurtengoan ere toberarik gabeko kabalkadari eutsi diotela.

Kabalkada parte-hartzaile guztien ibilaldiari deitzen zaio, baina Makean erranahi zabalagoa hartu du, bere baitan hasierako eta bukaerako ibilaldiaz gain, kantuak, dantzak eta antzezkiuzuna hartzen baititu.

Makean egin zituzten azken kabalkadetan, Ganix Antxor-doki kontrabandista entzutetsuaren bizitza izan zen gai nagusia. Oraingo honetan Ganix izan da lau gertaldiei batasuna eman dien pertsonaia.

Makeak gaur bostehun eta berrogei biztanle ditu, eta kabalkadan ehunetik gora aritu dira. Zenbait dantzetan hirurogeita hamar inguru aritu dira eta antzezle gisa hogeita bi lagun, gehien-gehienak herriko Jostakin antzerki elkartearen ibilitakoak, eta hori nabarmen gelditu da aurtengo kabalkadaren egiturari. Manex Fusch izan da antzerki-zuzendaria eta haren estiloak eta dinamikak indar handia eman diote antzezkiuzunaren egiturari.

2. Kabalkadaren sarrera

Aurtengo kabalkada bi egunetan emateko prestatu dute, lehena agorrilaren 28an, igandearrekin, eta bigarrena irailaren 3an, larunbatarekin. Ni lehen emanaldira hurbildu nintzen. Agorrilaren 22tik 26ra biziki berotsua izan zen Lapurdin izan genuen eguraldia, sargoria handikoa, bero sapa izugarria; larunbatean eguzkia hodei artean ezkutatu zen eta arratsean euria azaldu. Igandean ere eguna horrela itzarri zen, goiz-goizetik euria atertu gabe bota baitzuen.

Parasola eskuan hartuta, Makeara hurbildu nintzen. Arratsaldeko hiruak ziren eta jadanik, herria jendez betetzen ari. Herriko ostatuan kafe goxoa hartu ondoren, harmaila bustietan tokia hautatu eta eseri nintzen. Lauetan kabalkada, herriko plazara sartu zen. Euria gogotik ari zuen eta ikusle ugariarik parasola zabalik zuten. Euri azpian egin zuten sarrera airosoa. Kabalkadaren buruan bi zaldizko zihozen eta horien segidan, makilariak, oilarrak, zapurrak, banderariak, herrita-

rrak... eta bukaeran, zirtzilak eta bertsolariak. Osora ehun eta hogeita hamar lagun inguru.



Makilaria eta oilarrak plazara sartzen.



Zapurrak, banderariak eta herritarrak plazara sartzen



Plazan sartze-itzulia egiten

3. Lehen gertaldia

Plazan ohiko bi itzuliak egin ondoren, Ibai Barroso eta Or-tzi Idoate bertsolariek sarrera moduko saioa egin zuten. Lehen gertaldiaren hasiera izan zen. Gero, denek batera, “*Makea xoko*” izeneko kantu ederra abestu zuten. Hitzak Gilen Hiriba-rrenenak ziren eta musika Xalbat Berterretxerena. Osora zazpi kobla. Hona hemen horietako hiru:

*1.- Mila zortzi ehunean
Makea xoko partean,
denak umore onean,*

*kanpolan ala gordean,
galtza ilunak soinean,
boneta kasko gainean,
makila esku artean,
denbora doan heinean,
mila zortzi ebunean
lan onekin lanean!*

*2.- Makea xoko ixila
leku xume ta umila
urtetan hemen nabila
afera onaren bila,
kontrabandako mutila
jende zuzen ta bipila,
eskuan tinko makila,
sarea sendo dadila
Makea xoko ixila
leku zubur ta abila*

*7.- Makeako Antxordoki
gauaz lan egunaz loti,
ibiltzen da erreposki
guarden parean komonzki,
mendietako ordoki,
itsasondoko gorosti
den lekuan ez du aski,
negozioan bekaizti.
Makeako Antxordoki
memorietan egoki!!!*

Kantua bukatu orduko berrogei emaztek Makeako soka-dantzari ekin zioten, baina kantatuz, garai batean egiten zen bezala. *Ama-alabak / eta abizpak / aitzina doaz / saltoka.* ---errepikatzen zuten, behin eta berriz.

Ondoren, gabota dantzatu zuten. Dantzariak erretiratu bezain laster hasi ziren antzezki-zunarekin. Ordurako ateri zen, euria Makeatik aldendurik. Turista itxurako gazte multzo bat sartu zen plazara, ingelesa eta euskara nahasiz. Kabalkada ikustera etorriak omen. Gero zirtzilak agertu ziren eta Ganix Antxordoki heien artean. Beranduxeago, Ganixendako moduko printzesa azaldu zen. Ganixkeriak (edo zirtzilkeriak, nahiagoz gero) egiteari ekin zioten, harmailetan ginenon irrikarkailak sortuz.




Antzezki-zuneko turistak



Zirtzilak bazterrak nabasten





Zirtzilkeriak. Makeako kabalkadaren afixa

4. Bigarren gertaldia

Bostak laurden guttitan bertsolariek bigarren saioa iragarri zuten. Saio bikaina egin zuten, lehena bezain ona. Biak ongi aritu ziren entzuleen arretan ongi bereganatuz eta bihotzak piztuz. Segidan herritarrak plazara sartu ziren eta bizpahiru kontradantza eder eskaini. Ondoren, Baigurako mazeletatik etorritako artzainak sartu ziren lau ardi berezi-berezirekin (lau gazte ardi larruz jantzita). “*Etxahun eta Otxalde*” bertso famatuaren doinuaz bi bertso eman zituzten gaurko artzainen zailtasunak adieraziz. Horretan ari zirela, hamar bat mendizale edo ibiltari moderno horietakoak sartu ziren.

Hortik aitzina antzekizuna korapilatzen joan zen, eta era guztietako pertsonaiak eta agerpenak azaldu: traktore bat, mendizale horietako baten barnea jan zuten saiak, torero edo zezenketari bat txaranga baten doinuaz mugitzen zena,.... Zirtzilkeriatan aritu ziren laborarien mundua eta hiritarrena aitzinez aitzin ezarriz.



Baigurako artzaina eta bere artaldea



Hiritarrak beien bizimodua defenditzen

5. Hirugarren gertaldia

Bostak eta laurdenetan bertsolariek hirugarren saioari hasiera eman zioten. Aitzinekoak bezain ederra. Gero zortzi mutil sartu ziren, Otsagiko makila-dantzan oinarrituriko dantza bortitz bati ekinez. Bukatu bezain laster, hamabost bat neska sartu ziren eta euskal usadioan oinarrituriko dantza berriak eskaini zizkiguten.

Hauek amaitu eta antzezleen tenorea hasi. Urrearen xerka ibili diren konpainia bateko langileak parodiatu zituzten fartsa moduko kritika zorrotza eginez. Ondoren, errugbilariak sartu ziren kanta-kantari. Bukatzeko, birziklatzearen inguruan izan diren ika-mikak oroitarazi zizkiguten pertsonaiak agertu ziren, biziki momentu irringarriak sortu zituztelarik.



Errugbilariak plazara sartzen.



Makila-dantza



Zabor birziklapenaren inguruko zirtzilkeriak.



Herritarrek kontradantzan.

6. Laugarren gertaldia

Seiak laurden guttitan, bertsolariak azaldu ziren, berriz ere, eta azken gertaldiaren hasiera aurkeztu. Plaza gainean genuen Urtsuia mendian lainoa zen nagusi, baina Makean euririk ez. Hirurogeita hamar bat herritar inguru plazara sartu eta mutxiko kantatuak dantzatzeari ekin zioten. Ez zen ohiko gertaldia izan, ez baitzen oraingoan antzezkitunik egin. Horren orde, mutxikoek hartu zuten gertaldiaren ildo.

Mutxikoak bukatu ondoren, zaldizkoak eta parte-bartzaile guztiak plazara sartu eta ohiko bi itzuliak egin zituzten. Gero izkina batean, musikariak ziren oholtzaren aldean, bildu ziren denak eta azken kantua abestu ziguten. “Herriaren indarra” izena zuen, eta egileak lehen kantua egin zuten berberak ziren: Gilen Hiribarren eta Xalbat Berterretxe. Horra hor:

- 1.- *Hizkuntza eta tradizioak sortu euskal nortasuna saltzeko merkatuan merke gubaurrek ezarri duguna.*
- 2.- *Xenderak xut, bertsi ta lerrakor; eta sasien menpean... Galurik lanopean gaude eta baize botza parean.*
- 3.- *Bizitza hobe baten ametsa gure abutuen menpean, ez ote goaz gibeletzka garapenaren izenean?!*
- 4.- *Bildurik belaunaldi guziak plazarat atera gira, orok bat eraiki dezagun bizi hobe baten desira!*

Eta koblen artean honako errepika abesten zuten:

*Herriaren indarra batasuna,
elkar laguntza eta bakea!
Euskaldunen pindarra eta sua;
berpiztuko da Makea!*

Bukatu orduko mutxikoak izan ziren denontzat eta plaza dantzariz mukuru bete zen. Plazan tokirik ez, eta harmailtan ere baziren dantzan ari zirenak.



Urtsua mendia laino pean



Azken kantua



Zaldizkoak amaierako itzuliri basiera emanez

7. Kabalkadari buruzko iritzia

Hasteko erran behar dut tobera maite dudala, eta Makean egin behar zutena tobera ez zela jakin nuelarik, pena hartu nuela. Dena den, Makeako kabalkada ikustera joan nintzen. Berehala desagertu zitzaizkidan gogoan estekaturik neramatzan pena eta aurreiritzi guztiak, makearrek sekulako ikusgarria eskaini baitziguten.

Hasieratik bukaeraraino irringarri eta bihotz-piztaile izan zen. Jendeak ez zuen aspertzeko aukerarik izan. Antzekizun bikaina, dantzak eta kantuak ere ederrak izan ziren. Bi oren aski izan ziren bizi-bizi hori dena emateko. Antolaketa zuzen eta zorrotza zutela nabari zen.

Eta zer erranik ez, makearren euskararen aldetik. Sumatzen zen euskara bizi-bizirik dagoela Makeako biztanleen artean,

zahar zein gazteren artean, eta naturaltasun oso aritu zirez emanaldi osoan zehar.

Nire aldetik, eta bukatzeko, Makeako herritarrak zoriondu nahi dut, horrelako herri ttipian halako kabalkada handia eta ederra emateko gauza izan direlako. Zenbait herri handitan ez dira gauza horrelakorik egiteko. Badute zer ikasi makearrekin. Hiritarren adiskidetasunak eta elkar-lanak fruitu ederrak eman ditzake; Makean ederki frogatu digute, bederen.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruñan, 2016ko irailaren 5ean.*



Bukaerako itzulia